

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko martxoaren 23 • 187. zka.



Ikasteko aukera zabala



Zerbitzuak

- ✓ Alojamiento (6 gela bainuarekin, egongelak)
- ✓ Jangela zerbitzua
- ✓ Harrera hizkuntza desberdinetan (ingeleza, frantsesa eta alemana)
- ✓ Ikastaroak emateko tokia (zerbitzu guztiekin)

Noretzat da aproposa?


- ✓ Enpresetara datozen langileentzat
- ✓ Famili ekitaldietara (ezkontza, bataio...) datozen familiarreko eta lagunentzat
- ✓ Astebukaerako deskantsua bilatzen dutenentzat



AREANO

nekazalturismo etxea

Mendiola auzoa ☎ 943 71 44 70
ESKORIATZA (Sarrera Aretxabaletatik)



Ileapaindegia eta Estetika zentroa L-10

Behar dituzun zainketak eskaintzen dizkizu

Norberari egokitutako gorputzeko eta aurpegiko tratamendu estetikoak

Aurpegikoak

- Hidratazioa-nutrizioa
- Tonifikazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aknea...

Gorputzekoak


- Zirkulazioa
- Zelulitisaren aurkakoa
- Loditasuna
- Tonifikazioa
- Erlajazio muskular bidezko masajea

Depilazioak

- Argizari beroa
- Argizari hotza
- Elektriakoa (Blend)

Beste zerbitzu batzuk

- Iraunkorra + betileen tindaketa
- Bekainen tindaketa
- Manikura eta pedikura



ILEAPAINDEGI
ESTETIKA
SOLARIUMA

LORAMENDI, 10

TEL: 943 77 01 26

20550 ARETXABALETA

Informazioa ondorengo telefonoan: 943 77 01 26
Loramendi 10ean gaude

Unibertsitateko ikasketez gain zein beste ikasketa dauden badakizu? Zein iritzi duzu beraien inguruan?



Jorge Bengoa

Bai, badakit modulo eta heziketa zikloak daudela. Lan irtenbidea badutela uste dut, bestela ez lirateke eskainiko.



Juan Luis Iturbe

Ez nago gaian oso jarria. Dena dela, badakit unibertsitateaz gain beste ikasketa mota batzuek badirela. Unibertsitateak beteta daudenez, eskaintza osagarria da.



Ana Davila

Bai, ilobak ditut horrelako ikasketak egiten. Dena dela, gaur egun ikasita ere, lan egoera ez da batera ona nire iritziz.



Yolanda Martinez

Bai. Unibertsitatera sartu ezin direnei, edo beste ikasketa mota batzuk egin nahi dituztenei zuzenduta daude mota horretako ikasketak.

ESKUTITZA



Jendearengatik entzun ditugun hainbat komentario direla eta, Urkuluren gaia berriro planteatzea erabaki dugu. Urkulu, faunaren aldetik gero eta aberastasun handiagoa duen gunea da, zeren eta, kilometro karratu eskas batean 76 hegazti-espezie baitaude: espezie gehiegi hain toki txikirako. Adituek esaten dutenez, ahate, lertxun, zikoina, zisne eta abarren espezie ezberdinak aurki daitezke, baita txori-mota antz ere. Eremu honen aberastasuna -haien esanetan- Txingudiko badiarekin bakarrik aldera daiteke Gipuzkoan. Esaten da Gipuzkoako Aldundiak parke ornitologikoa bihurtu nahi duela ehiza-babesleku hau.

Baina Urkulu hori baino gehiago da Leintz Bailerako

makina bat jenderentzat. Aisialdirako nahiz kirola egiteko gune pribilegiatua izateaz gain, naturarekin harremanetan egoteko inguru ia bakarra da.

Gaur egun, esparru kuttun honen egoera penagarria da, oso hondatuta eta gutxi zainduta dagoelako. Ibiltzera, "bizitzaz gozatzera" edo balio ez duten objektuak botatzera doan jendeak utzitako hondakinez beteta dago. Ohikoa da dena paperez, kondoiz, tamaina handi nahiz ertaineko hiri-hondakin solidoz eta abarrez josita aurkitzea.

Hori guztia kontuan hartuta, uste dugu inplikaturak dauden erakundeek (Uren Partzuergoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aretxabaletako Udala) era koordinatuan esku hartu beharko luketela gai honetan. Behar-beharrezkoa da baso

pista batzuen eraikuntza sistematikoa zorrozki kontrolatzea. Urtegia inguratzen duen bidea bidegorrietan erabiltzen den harea gorriarekin estal daiteke. Debekatu egin behar da ibilbide osoan kotxeak ibiltzea, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak dituztenenak salbu. Arbola-espezieak landatzeko plantagintza egin eta urtegi eta inguruen ehiza galarazi.

Ez dugu ahaztu nahi Urkulu hiri-hondakin txiki eta handiez betetzen duen jendeari kritika egitea eta eskatzea kontzientzia hiritar handiagoa izan dezala.

Ekologistak Martxan (Eki)

Aretxagazeta

187. zenbakia
2000ko martxoaren 23a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.
Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Erredakzio-kontseilua:

Gurutz Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak:

Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaila:

Aitor Urrutia.

Inprimategia:

Eguzkigraf, Koop. Elk.



Tirada: 2.500 ale.

Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: S3378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

EAJ-K JASO ZITUEN BOTO GEHIEN HAUTESKUNDE OROKORRETAN

Martxoaren 12an Espainiako Gorteetarako egin ziren hauteskundeetan EAJ izan zen garaile Aretxabaletan. 935 boto jaso zituen alderdi politiko honek, orain lau urte baino 78 gehiago. Hurrengo PSE izan zen 530 botorekin baina azkenengo hauteskunde orokorretan baino 174 boto gutxiago jaso zituen. EAk ere beheranzko joera erakutsi du azkenengo hauteskunde gutzietan. Oraingoan 434 jaso zituen, aurrekoan baino 151 gutxiago. Partido Popularrekoek, berriz, 148 boto gehiago hartu zituzten oraingoan, 410 hain zuzen. Azkenengo Ezker Batua geratu zen 121 botorekin, honek ere behera eginez. EHk eskatu zuen abstentzioak, berriz, jarraipen handia izan zuen, 2.597 lagun botoa eman barik geratu baitzen, %51 hain zuzen.



Goiena kooperatibaren proiektua argitzeko batzar informatiboa egin zen

AKLk ohiko batzar orokorra egingo du martxoaren 30ean

Datorren martxoaren 30ean Aretxabaletako Komunika-bideak-Loramendi elkarteak batzar orokorra egingo du. Ohiko gaiak aurkeztuko dira bertan, 1999ko jarduerak, 2000ko egitasmoak, diru kontuak... Bazkide guztiei parte hartzeko deialdia luzatzen zaie.

Pasa den ostegunean, berriz, batzar informatiboa

egin zen AKLko eta Loramendiko bazkideentzat. Goiena kooperatibaren proiektua argitu nahi izan zitzaizen bazkideei eta bertan, Josu Sarasua Loramendiko lehendakaria eta Alberto Trojaola AKLko lehendakari ordea izan ziren hizlariak. Bildutako 20 lagun artean zalantza eta kezka ugari agertu ziren.

AMETZAKO BIDEA ASFALTATZEKO LANAK HASI DIRA

Izurieta auzotik Ametzako baserrietara doan bidea konpontzen hasi dira. Bide hau ez zegoen batere egokiora onean eta Udalak konpontzeko erabakia hartu zuen. Asfaltatu aurretik, bazterrek garbitu eta txukundu beharra daukate, beraz, lanek hilabete pare bat behintzat iraungo dute.

HIES EKIMENA ELKARTEA DESAGERTU EGINGO DA

Elkartea desagertu egingo dela adierazi dute Hies Ekimena taldekoek ostegun honetan bertan egingandako prentsaurrekoan. Orain hamabi urte inguru hasi ziren lanean Domi Korta eta beste 30en bat lagun, gaur egun, ordea, bi besterik ez dira geratzen. Nekatuta daudela adierazi zuen Domik, nekatuta bai fisikoki, bai psikikoki bidean lagun eta senide ugari utzi baitituzte.

Hies Ekimena desagertzten bada ere talde berri bati lekua uzteko izango da, "Hies berri" elkarteari hain zuzen. Jende berriaren bitartez hiesaren inguruan sortu diren behar berri erantzungo die talde honek.



Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA


• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



ARETXABALETAN IGO DIRA GEHIEN ETXEBIZITZEN PREZIOAK

Foru Aldundiko Hazienda sailak, 1999ko eta 2000ko urtarrileko etxebizitzien katastro balioen artean konparaketa egin du. Azterketa honen arabera, Donostialdea eta Deba-goieneko etxebizitzak izan dira Gipuzkoa mailan igorerarik haundiena izan dutenak. Aretxabaletakoek, esaterako, %54,9ko igoera izan dute, bailarako igorerarik haundiena.

Datu bilketa honen arabera, Otalora kaleko 82m²ko etxebizitza batek 1999an, ia 13 milioi balio zituen, 2000. urtean, berriz, ia 20 milioi. Durana kaleko 90 m²ko beste batek berriz, 1999an 18 milioi pasatxo balio zituen, aurten, 27 milioitik gora. Diputazioaren arabera, egoera ekonomiko hobea izatea eta kredituek duten interes tasa baxua izan daitezke izugarritzko igoera honen arrazoia.

II. Euskal Basogintza Topaketa egingo da Aretxabaletan

Datorren martxoaren 31 eta apirilaren 1erako II. Euskal Basogintza Topaketa antolatu du Euskadiko Zur Mahaiak. Egurraren inguruko topaketa honetan, lehenen-

go egunean ihardunaldi teknikoak izango da nagusi eta Zaraia zineman egingo da. Bigarren egunerako, berriz, baso azoka antolatu da Urkuluko urtegian.

■ Martxoaren 31a, eguakotxa Ihardunaldi teknikoak Zaraia zineman

9,00 Jardunaldien irekiera

Iñaki Gerenabarrena, Nekazaritza eta Arrantza sailburua
Jon Mikel Murua, Gipuzkoako Nekazaritza eta Ingurugiro diputatua
Anjel Bergaretxe, Aretxabaletako alkatea

9,45 Euskal baso eta mendiak

Manuel Ruiz Urrestarazu, Arabako Aldundiko Ingurugiroko zuzendaria

10,30 Landa garapena eta baso jarduerak

Ibon Mandaluniz, Landa Garapeneko zuzendaria

11,15 Kafea

11,45 Mahaingurua

Nekazaritza eta basogintzako lurralde plana Eusko Jaurlaritzako eta hiru Aldundietako kideak

15,30 Zuraren bigarren transformazioa

Pello Gorroño (EGOIN, SA) -Zurezko egitura-
Eneko Gorostidi (LANA, Koop. Elk.) -Hiru geruzako taula landatarra-
Demetrio Egilaz (INTEMA, S.Mug.) -Taula listoitua-
Eduardo Marquez (EBAKI XXI, SA) -Zerra, paletak, brikoka-
Moderatzailea: Jose Mari Aztiria (Bengolea Zerreria)

17,00 Kafea

17,30 Abenduko haizeak -Frantzia-

Amelie Castro (CPFA) Akitania
Jose Gabriel Saiz (JOSE SAIZ, SA ETA ACEMM)
Kepa Albizu (CENTRAL FORESTAL. EZKko lehendakaria)
Angel Mari Jauregi (GEBeko lehendakaria)
Moderatzailea: Esteban Goitia (MIMEko gerentea)

19,00 K-2ra igoera. Ikus entzunezko emanaldia

Jose Ramon Agirre

■ Apirilaren 1a, zapatua

Baso azoka Urkulun, goizeko 10etatik eguerdiko ordu bietara Hiru sailtan banatutako azoka izango da atsedena, zaintza eta produktzioa. Etxe komertzialak, basoko produktuekin egindako artisaun lanak, herri kirolak eta bertsolariak ere ikusgai izango dira.

ESPALOI ETA KALE BAZTERRAK TXUKUNDUKO DIRA

Udalak beti gorde izan du dirua kaleak txukun eta modu egokian mantendu ahal izateko. Herriko hainbat kale txukunketa eta kasu batzuetan konponketa beharrean dagoela ikusita hortantxe hasi dira.

Loramendi inguruan, kolektore lanak bukatu ostean hainbat espaloi eta kale bazter egoera kaskarrean geratu ziren, batzuk behera eginda, beste batzuk apurtuta... Hori guztia konpontzeko asmoa dago eta lanak hasita daude. Herriko beste toki batzuetan ere, kolektore lanik pasatu ez arren kaleak txukunketa beharrean daude, Mitarte plaza inguruan esaterako. Beraz, arrazoia bata edo bestea izanda ere kaleak konpondu eta egoera onean utziko dira aste batzuren barruan.



GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Elgeako lehenengo haize errotak jarrita daude

Gipuzkoa eta Araba arteko mugan jarri dituzte lehenengo haize errotak. Martxoaren 10ean jadanik bi haize errota ikus zitezkeen Larrino auzotik eta poliki-poliki gero eta gehiago daude. Udarako, 40 haize errota izango dituen Elgeako parke eoliko hau, marxan egotea espero da.

Izugarrizko haize errotak

Haize errota bakoitzak 65 tonelada eta 67 metro ditu. Hegalak beirazko zutzezkoak dira eta 22 metroko luzera dute. Haize errota hauek Gasteizko Gamesa Eolica enpresak eraiki ditu eta sorgailu edo generadoreak, berriz, Beasaingo Indarrek. Bertan, 66.000.000 kwh sortuko da urtean eta 100.000 lagunenez elektrizitate beharra asetuko dela-koan daude.

Haserrea nagusi

Energiaren Euskal Erakundearen esanetan, Elgeako parke eolikoak zentral termiko batek baino 60 mila CO₂, 240 mila SO₂, eta 197 mila NOx partikula gutxiago botako ditu ingurunera energia kantitate bera sortuz.

Abantailak besterik ez dituela izango dioten parke eoliko honek haserrea ere sortarazi du, bai talde ekologisten artean bai lurren jabeen artean, gauzak behar bezala egin ez direlako. Honen ildotik, martxoaren 11n Arabako Barrundian materialez beteta zegoen kamioi bat erre zen. Kamioian, Gamesa enpresako haize errotentzako hegala zeuden. Sua nahita piztutakoa izan zitekeela adierazi zuten, sabotaje susmoa hartu baitiote ekintzari.



Elgeako zentral eolikoko lehenengo haize errotak jarrita daude



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalaria kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA





Soinekoak,
Berokiak,
Trajeak ...

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

AZKARATE
AROSZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

**Ateak,
leihoak,
horma armairuak,
tarimak
eta
parketak**

■ TRUKE PROGRAMA JARRI DU MARTXAN MUNDUKIDE FUNDAZIOAK

Garapen komunitarioko esperientzien trukaketa bultzatzeko helburuarekin truke programan murgildu da Mundukide Fundazioa. Trukerako sortu dituen beken bitartez, zortzi lagun etorri dira Hego eta Ertamerikako hainbat herritatik Guatemala, Ekua-dor, Nikaragua, Mejiko, Kolonbia eta Perutik hain zuzen. Irakasle eskolako ikasleek lagunduta, hara eta hona dabil taldetxo hau Euskal Herriko errealitate ezberdinak ezagutu nahian, kooperatiben berri izan, hezkuntza munda ezagutu... Euren esperientzien berri ere eman nahi digute lagun hauek, hori dela eta ostegun honetan bertan kafetertulia izango da Aretxabaletako udaletxe zaharrean arratsaldeko 7etan. Truke programaren lehenengo esperientzia izan bada ere, lankidetzaren eredu hau bultzatzeko asmoa dago.

866 lagunek parte hartu zuen kanpo zorra deuseztatzearen aldeko sinadura bilketan

Arrakasta haundiz burutzen domekan kanpo zorra deuseztatzearen aldeko sinadura bilketa. Guztira 866 lagunek parte hartu zuen galdeketa, Aretxabaletako biztanleriaren %17ak hain zuzen. %99ak hiru galde-

tan baietza erantzun bazuen ere, ezezkoak ere egon ziren. Pozik agertu ziren Hiruatz taldekoak jasotako emaitzarekin, nahiz eta hauteskundeak domekan egin izan balira parte hartzea haundiagoa izango zela uste izan.



BAI EUSKARARI KONTSEILUAK PLAN ESTRATEGIKOAREN BERRI EMAN ZUEN

Bai euakarari akordioaren plan estrategikoa, astelehenean aurkeztu zen Aretxabaletako gizarte eragileen aurrean. Jose Jabier Iñigo Kontseiluko plangintza burua izan zen aurkezlea. Lan munduko, aisialdiko, hezkuntzako, kiroleko eta gizarte mugimenduetako ordezkariak bertaratu ziren, 18 bat lagun guztira. Euskara bultzatzeko konpromisoa hartzea eskatu zitzaizen talde guztiei, bakoitzak bere esparruan eta ahal duen neurrian lan egiteko konpromisoa hain zuzen. Ordezkarri hauek, gainera, plan estrategikoari dagokion txostena euren taldean aurkeztu beharko dute.

Deba Ibarreko Euskaria liburua aurkeztuko da



Koldo Zuazo eibartarrak idatzitako Deba Ibarreko Euskaria liburua aurkeztuko da datorren asteazkenean, hilak 29. Debagoienerako euskalkia aztertu eta euskalkiak duen garrantzia azpimarratzen da liburuan. Idazlea bera etorriko da aurkezpena egitera eta udaletxearen ganbaran arratsaldeko 7etan izango da.

EUGENIO OTSOARI ETA "PEQUEÑORI" OMENALDIA EGIN ZIOTEN GATZAGAN

Eugenio Otsoa, urte askoan alkate izandakoari eta Juan Mari Makazaga, "Pequeño", aguazila izandakoari omenaldi beroa egin zioten Gatzagako herritarrek pasa den zapatuan. Hainbat opariz gain, euren aurpegiko irudia duten buruhandiak ere aurkeztu zizkieten. Ondoren egin zen bazkarian, berriz, 160 bat lagun elkartu ziren.



FARMA BIZI

**Parafarmazia
Kontsulta naturista**

Loramendi, 8 Tfnoa/Faxa: 943 77 18 18



**Pintxoetan
espezialitatea**

Zatozi

Lausitta taberna

Lausitta, 4
943 79 29 36
(Lehenengo Juliantxo)

Atxabaltan bizi den idazle arrasatearra da Diego. Liburu bat kaleratzeaz gain, "Hamairu eta bat", PUTZ aldizkariko lan taldea gidatzen du. Bihilabetekari gazi-gozo honen bigarren alea kaleratu dute martxoan eta pozik daude izandako harreraz.



Diego Martiartu

PUTZ, baserittar ilustrauendako errebistie

■ **Nolatan sartu zinen aldizkari baten sorreran?**

■ Aldizkaria sortzera Balen Tramon eta Ramon Ugalde animatu ziren. Bi hauek Ostiela aldizkarian lan egiteko zetozen eta oraindik aldizkarian lan egiteko gogoia zekarten. Eurek idazte kontuetan sartuta geunden hainbati deitu ziguten Iker Barandiarani, neuri... Kuadrilatxo bat elkartu eta hortan hasi ginen.

■ **Zergatik PUTZ izena?**

■ Batek bota eta besteoi, moztza izatean gogoan aguro hartzen dela iruditu zitzaigun. Hitz elkarketak eta hitz eratorriak osatzeko erraztasun handia ematen du gainera, astaputza, harroputza, putzker... eta honekin jokatzea egin daiteke.

■ **Etiketarik jar al dakiok aldizkariari?**

■ Ez dakit, geure lan taldea oso heterodoxoa da, oso sentsibilitate ezberdinak daude, beraz, ez nioke etiketarik jarriko. Helburua euskal kulturaren berri ematea izango litzateke, behar bada nahiko era friboloan. Badaude gauza oso serio eta mamitsuak baina friboloak ere bai eta batzuetan errezkeriara ere jotzen dugu. Orokorrean aldizkari kulturala dela esan daiteke.

■ **Zergatik bihilabetekaria?**

■ Horrela erabaki genuen eta bi hilabete behin ateratzeko ere nahikoa lan. Hilean behin ateratzea polita izango litzateke baina momentuz ez daukagu horri aurre egiteko infrastrukturarik.

■ **Zein kriterio erabiltzen duzue albisteak aukeratzeko orduan?**

■ Momentuko albisteak sar-

tzen ahalegintzen gara. Norberak nahi duena idazten du eta gero idatzitakoa beste guztiok irakurtzen dugu. Bukaeran, materiale ugari daukagunean, zer sartu eta zer kendu erabakitzen dugu.

■ **Sexua asko agertu da bi aleetan, kasualitatea da?**

■ Ez, sexuari indarra eman nahi diogu. Lehenengo alearekin izugarrizko arrakasta izan genuen. Portadak bi aldeetako iritziak sortarazi zituen, aldekoak eta kontrakoak baina barruko "alu jana" asko gustatu zen. Guk merkatuari begiratu behar diogu eta jendeak sexua nahi badu, aurrera. Bai, sexua sarri ateratzeko asmoa daukagu, hori bai, oso modu ludiko eta katxondoan.

■ **Zergatik sinatzen dituzue artikuluak ezizenez?**

■ Lehen esandako moduan

Putz izenaz samur jolastu daiteke eta horrek kolektibo izaera ematen dio idatzitako guztiari Putzker, Putzini, Putzman... Horrez gain, sinadurari edukiari baino garrantzi haundiagoa emateko joera dago gure artean, dena sailkatzeko joera. Ezizenekin edukia bakarrik kontuan hartzea nahi dugu, edukia ona bada aurrera!

■ **Nolako harrera izan du aldizkariak?**

■ Oso ona. Iritzi oso onak jasotzen ditugu eta salmenta aldetik ere oso pozik gaude. Bilintx liburu dendan esaterako 20tik 17 saldu dira, ez da gutxi. Ia zein euskarazko aldizkari saltzen du hainbeste... Nobedadea izan daiteke? Auskalo! Gainera, ia ez dugu aldizkariaren promoziorik egin, ahoz aho zabalduko berria izan da gehienbat.

Eta orain zer?

Askotan gurasoek pentsatzen dute gazteok etxetik ez dugula joan nahi, guretzat errezena hogeita hamar urterekin gure betiko logelan jarraitzea dela. Baina nola jaregin gaitzake? Gauzak ez dira hain errazak izaten, pentsatu egin behar dena zera da, unibertsitariak adibidez hogeita lau urtetik gora dituztenean bukatzen dituztela ikasketak eta zailena guztientzat lana aurkitzea izaten dela. Eta lortzen duten zoriontsuek, zer lan mota aurkitzen dute? eta zenbat denborarako? Istorio hau ongi ezagutzen dugu denok, zoritxarrez.

Nork ez du entzun noizbait "dirua ez dela bizitzako gauzarik garrantzitsuena, lehenengo osasuna (eta maitasuna) daudela? Hala ere, argi dagoena zera da, langabezian egonda ez dagoela dirurik eta orduan ezin dela planteatu etxebizitza bat erostea, zeren eta etxebizitzaren prezioak ikusten baditugu... bai Aretxabaletan eta bai leku guztietan, edonor zorabia daiteke. Nola da posible etxeak hogeita hamar milioi pezeta balio izatea pertsona batek (soldata ona edukiz gero) ehun eta berrogeita hamar edo berrehun mila pezeta irabazten baditu? Datuak begiratu hotzikara eragiten diote edozeini! Baina oraindik estadistikek diote neskek oraindik gatxago daukagula lana aurkitzeko. Zergatik? Suposatzen da oso preparatuak gaudela, badirudi interneten ondo moldatzen garela, oso ikasle onak garela, baina gero lanik ez.

Dirua betiko koska da, batzuek diote buruko minak bakarrik ekartzan dituela, baina bera gabe ezin dugu bizi, ene ene, zer nolako buruko mina egin behar zaidan gaur! zer egin egoera honen aurrean? Lehenengo pazientzia eduki eta gero norberak aztertu behar ditu izan ditzakeen irtenbideak. Beraz, pazientzia.

Ainhoa SAGARRIBAI



PAGALDAI

**Opari denda
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

Iber

★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿


Otalora, 2
Tel.: 943 79 04 39

HAURRIK



**Umeendako
moda**

Lezama merkatal
zentrua, 15
ARETXABALETA



Teknologia berrietan dago etorkizuna

Lan mundura bideratutako ikasketak

Guraso askoren ametsa seme-alabak unibertsitatera bideratzea izan da eta da. Gaur egun, ordea, heziketa zikloak ari dira indarra hartzen. Industriak langile kualifikatuak behar ditu eta lanbide heziketak eta moduluek behar bakoitzerako prestatutako jendea eskaintzen dute. Unibertsitateko lizentziadunek lana aurkitzeko duten zailtasunen aurrean lanbide heziketakoen langabezia tasa baxua dago.

Garai batean, batxilergoa bukatu eta unibertsitatera joateko gai ez zena ikasle txarra zen. Gurasoen gogoia ere, euren seme edo alabak unibertsitateko lizentziadura izatea ohi zen. Gaur egun lizentziadura edo diplomadura duen

baina lanik ez duen gazte ugari dago. Zertarako ikasi hainbeste gero lanik ez badago?

Orain hamabost bat urte, eskolako porrotari buruz ikerketa bat egin eta gero sortu zen Lanbide Hastapeneko lehenengo zentrua, 1987an Elorrión

hain zuzen. Ondoren beste ikasketak guztiak etorri dira moduluak eta lanbide heziketako zikloak, bai maila ertaineko titulazioak bai goi mailakoak. Beraz, "tontoentzat" uste ziren ikasketak gero eta indar haundiagoa hartzen ari dira.

Aukera bat baino gehiago dago Debagoiena eskualdean ere unibertsitatera joan nahi ez duten gazteentzat. Aretxabaleta, Arrasate eta Bergaran gero eta indar haundiagoa eta gero eta ikasle gehiago dituzten heziketa zikloak eskaintzen dira.

Lanbide Hastapena eta Lantegi Eskola

Badira batxilergora ezin helduta geratzen diren ikasleak. Baita DBHra ezin helduta geratzen direnak ere. Gazte hauetako gehientsuenek ez dute ikaslea gogoko baina ikasketarik gabe ez dago lanik, beraz zer egin? 16-20 urte bitarteko gazteek Lanbide Hastapenera jo dezakete. Sukaldaritza eta bulego zerbitzuak, aroztegia eta igeltserotza, eta mekanika eta elektrizitatea dituzte aukeran. Urte beteko kurtsuan zehar gizarteratzeko eta laneratzeko behar duten heziketa eta prestakuntza ematen zaie bertan. Bertako zuzendaria den Jose Luis Arregiren esanetan "kurtsu honetan 72 gazte matrikulatu ziren baina momentu honetan 50 inguru gelditzen dira, beste guztiek lanera alde egin dute".

Lantegi eskolan, berriz, bi urteko kurtsua dute. Lehenengo sei hilabeteak tailerretan ematen dituzte lanbidea ikasten eta ondorengo urte eta erdia lanean pasatzen dute soldata txiki baten truke. Lanok erakunde publikoentzat egiten dituzte, Galartzako dorretxearen berriztapena edo oraintsu hasi diren Antzuolako Olanen etxearen konponketa esaterako.

Bai Lanbide Hastapena, bai Lantegi Eskola Arrasateko Nafarroa etorbidean daude. %70a Eusko Jaur-laritzak finantziazten du eta beste %30a Debagoieneko mankomunitateak. Gestionatze lanetan, berriz, aurtengo kurtsuan hasita Arizmendi kooperatiba dabil.

Heziketa zikloak

Batxilergoa bukatu duen ikasleak unibertsitateara joateko posibilitateaz gain, beste aukera batzuk ere baditu. Gero eta indar haundiagoa hartzen ari diren heziketa zikloak unibertsitateari konpetentzia egiten hasi dira. Lizentziadunen artean langabezia nagusi den bitartean heziketa zikloetatik pasatutako gazteen artean lana da hizpide.

Erdi mailako heziketa zikloetan sartzeko DBH gaitua izan behar da beraz, 16 urteko ikasleak batxilergora jo beharrez heziketa ziklora bideratu ditzake bere ikasketak. 1300-1400 orduko kurtsua izan ohi da erdi mailakoa. Goi mailako zikloetarako, berriz, batxilergoa gaitua izan behar da eta 2000 orduko kurtsuak izaten dira.

Heziketa ziklo hauen ezaugarri garrantzitsuenetarikoa enpresetan praktikak egiteko ahalmena da. Ikasketak teorikoek praktikak behar dituztela ikasketak osatu eta borobiltzeko inork ezin du ukatu gaur



2000-2001 ikasturteko heziketa zikloetako aukerak:**■ Arrasate-Aretxabaleta institutua (Aretxabaleta)**

Erdi mailako heziketa zikloak:

- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Ibilgaien elektromekanika
- Erizaintzako zainketa osagarria
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizatua

Goi mailako heziketa zikloa:

- Fundizio eta pulimetalurgia bidezko produkzioa

■ Miguel Altuna institutua (Bergara)

Erdi mailakoak:

- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Mekanizatua

Goi mailakoak:

- Kontrol automatiko eta erregulazio sistemak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Administrazioa eta finantzak
- Plastikoa eta kautxugintza

■ Almen ikastetxea (Eskoriatza)

Erdi mailakoak:

- Eraikuntza akaberak

Goi mailakoak:

- Gorputz eta kirol ekintzak
- Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa

■ San Viator ikastetxea (Arrasate)

Erdi mailakoak:

- Erizaintzako laguntza osagarriak

Goi mailakoak:

- Ingurugiro kimika
- Ingurugiro osasuna
- Osasungintzako dokumentazioa

■ ETEO (Oñati)

Erdi mailakoak:

- Administrazio kudeaketa

Goi mailakoak:

- Idazkaritza
- Administrazioa eta finantzak
- Nazioarteko merkataritza
- Aplikazio informatikoen garapena

■ Mondragon Eskola Politeknikoa (Arrasate)

Erdi mailakoak:

- Sukaldaritza

Goi mailakoak:

- Kontrol automatiko eta erregulazio sistemak
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko ekoizpena
- Sistema informatikoen administrazioa
- Industri ekipoaren mantentzea

egun. Unibertsitateak eskaintzen ez duen aukerari ematen dio hain zuzen heziketa zikloak ikasleari.

Lanbide Heziketan, sarritan, erdi mailako zikloetan geratu ohi da jendea goi mailakoetara pasatu gabe, sarritan zikloa amaitu ondoren lana aurkitzen baitute askok. Gaur egun, ordea, enpresa eta lantegiek sarritan goi mailako ikasketadun langileak nahi dituzte. Batzuetan, gainera, postu edo behar konkretu bat beteko duen jendea nahi izaten dute. Kasu hauetan, enpresek, hitzarmenak sinatu izan dituzte eskolekin ikastaro edo ziklo jakin bat irakatsi eta langile gaituak prestatzeko helburuarekin. Horregatik ikastetxe edo institutu batean zein ziklo eman aukeratzeko orduan inguruko enpresetako beharrak aztertzen dira. Merkatua da nolako langilea behar den esaten duena eta horren arabera perfila osatzen dute Lanbide Heziketan.

Debagoienan hainbat zentru

Bere ikasketak heziketa zikloetara bideratu nahi dituen ikasleak badu non aukeratu Debagoienan. Batetik institutu publikoak

daude, Aretxabaletan Arrasate-Aretxabaleta institutua eta Bergaran Miguel Altuna. Beraiek eskaintzen dituzten ziklo gehientsuenak industriari begira antolatutakoak dira, inguruko lantegietako beharrak asetu nahian.

Bestetik, Arizmendi Kooperatibak daramatzen heziketa zikloak daude, Almen, San Viator, Eteo eta Mondragon eskola politeknikoaren artean banaturik. "Almenen orain arte laborategiko teknikak ere eman ditugu baina aurten bukatu eta datorren kurtsora begira eraikuntza eta obra zibilaren familiako bi ikasketak berri jarriko ditugu bata erdi mailakoa eta bestea goi mailakoa" dio Joxerra Zubizarreta Arizmendi Kooperatibako komunikazio arduradunak.

Kontuak kontu, argi dago gaurko gizarteak eta batez ere lan munduak, profesional gaituak behar dituela. Teknologia berriak hedatzen doazen heinean langile adituak eskatzen dituzte enpresek eta hortxe dago edozein lanen etorkizuna. Beraz, urteak eta urteak ikasten pasatu gabe lanean hasi nahi duen gazteak badauka zer ikasi eta baita non ikasi ere.





Futbola

Preferenteak berdinketa Seguraren aurka. Gogor borrokatu behar izan zuten Iñaki Ceciagaren mutilek segurarren aurka binako berdinketa lortzeko. Jon Anderrek eta Erikok sartutako golei esker partidua berdintzea lortu zuen Udak etxean. Emaiza horren ondoren, 12. postuan kokatu da Aretxabaletako taldea. Hurrengo ihardunaldiari dagokionez, preferenteak kanpoan jokatu du Hernaniren aurka.



Korrika

Joseba Larrinaga zazpigarren Algarveko txapelketan. Portugaleko Algarven egin berri den munduko txapelketan zazpigarren postuan bukatu du Joseba Larrinagak. Atxabaltako korrikalaria pozik agertu da lortutako emaitzarekin, izan ere, bere ezaugarrietarako karre- motzegia zela kontuan izanik, postu ona lortu du. Hemendik aurrera bere markak hobetzen saiatuko da Larrinaga hainbat proba eta maratoi erditan.



Gimnasioa

Gimnasioko ariketen inguruko ikastaroa. Gimnasioko hainbat ariketa mota azaltzeko eta bertako makinaren erabilpenaren inguruko berri emateko ikastaroa antolatu da kiroletxean. Bi epetan emango da, martxoaren 29 eta 30ean eta apirilaren 4 eta 5ean. Orduetgia 6:15etatik 7:30etara izango da. Izen ematea kiroletxean egin daiteke, abonatuak 1.000 pta ordainduz eta gainontzekoak 1.500 pta.



Mendia

Zaraia mendi taldea Gipuzkoako itzulia burutzen. Zaraia mendi taldeak gogor ekin dio 2000. urteko egutegiari. Hilean bi domekatan gutxienez mendi irteera bat antolatzen du eta horren barruan, gainera, Gipuzkoako itzulia egiten ari dira taldekide batzuk. Martxoan esaterako, Arlaban-Otzaurre mendi martxa egin dute eta datorren apirilaren 2an Otzaurtetik Lizarrutirako ibilbidea burutuko dute.

Txirrinduan ibiltzeari utzi eta mendiz mendi martxak egiteari ekin zion Jesus Marik orain bost urte. Geroztik martxak asteroko konpromiso bihurtu dira atxabaltar honentzat. Berarekin batera beste atxabaltar bat ere aritzen da, Goio Arrieta hain zuzen. Biak ere, martxa zale gogorrak egin zaizkigu.

■ **Zikloturista martxetatik, oinezko martxetara. Nola-tan salto hori?**

■ Mendia betidanik gustatu izan zait. Bizikleta, berriz, urte batetik bestera utzi egin behar izan nuen. Beraz, hortik aurrera mendian gehiago ibiltzeari ekin nion. Horrelako martxa batean Goio Arrietaekin elkartu nintzen eta harrezkero biok batera parte hartzen dugu ibilaldi hauetan.

■ **Zein ezaugarri izaten dituzte martxa hauek?**

■ Martxen denboraldia orain hasi eta iraila artean luzatzen da. Martxa batetik bestera, kilometro eta ordu kopuruetan dago desberdintasuna. Ibilbidea egiteko

denbora minimo eta maximo batzuk daude eta baita hainbat geldione ere. Komentu martxa guztiak sei ordutik gorakoak dira.

■ **Nola irauten du gorputzak ordu luze horietan?**

■ Sei bat ordu nahiko ondo. Hortik gora gogorragoa da eta gorputzak ondo erantzun dezan, bitamina batzuk hartzea derrigorrezkoa da.

■ **Daukazu adinarekin oraindik pauso arina izango duzu mendian, ezta?**

■ Ni soseguz ibiltzen naiz. Adinean gora gorputzak igarri egiten du eta beronek eskatzen duen erritmora joaten naiz.

■ **Aretxabaletan martxa bat egiteko asmoa duzue.**

■ Bai, Imanol Etxabek bota zuen ideia eta Goio eta bioi proposamena asko gustatu zitzaigun. Gero Murrukixorekin harremanetan jarri ginen eta guztion artean an-

tolatuko dugu, ekainaren 11rako.

■ **Eta zein ezaugarri izango ditu Aretxabaletako lehen mendi martxa horrek?**

■ Sei-zortzi ordu bitarteko martxa bat izango da. Ibilbidea oso polita da, herritik hasi eta, Oro-Larrino-Urkulu-Urrexola-Ugastei-Degurixa-Leixargarate-Arlutz-Kurtzebarri eta Elixabarriko ibilbidea egin ondoren, herriko plazan amaituko da. Guztira 28 kmtako ibilbidea da.

■ **Zein partizipazio kopuru espero duzue?**

■ Hirurehun bat parte hartzaile inguru izango direla uste dugu. Kontuan izan behar da, hurrengo domekan hiru haundiak egingo direla, eta hortaz, entrenamendu gisa oso egun egokia dela. Lehen aldia denez, ez dakigu nolako harrera izango duen. Dena dela, hau ez da lehen martxa izango eta

bi urtetik bi urtera antolatzeko asmoa dugu.

■ **Eta herriko martxa horren ondoren, Hiru haundi- tarrak?**

Iaz parte hartu nuen eta Gatzagainen gelditzea erabaki nuen. Aurten ere badut parte hartzeko asmoa, baina horretarako bai buruz eta bai gorputzez oso ondo gertatuta egon beharra dago.

Jesus Mari Herrasti

Mendiz mendi, martxaz martxa





Herriko karatekak Oñatin egin zen txapelketan izan genituen pasa den domekan

Karatekak lehenengo torneora

Martxoaren 19an herriko hamabost karatekak Oñatin egin zen V. Oñati Hiria karate torneoan hartu zuten parte. Kirol ekitaldia Oñatiko kiroletxean izan zen, eta bertan, Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako karatekez gain, Zaragozakoak ere egon ziren.

Txapelketa goizeko 10:30ean hasi eta eguerdiko ordu biak arte luzatu zen. Tarte horretan bost mailatan lehiatu ziren karatekak, guztiak kata modalitatean. Aretxabaletatik joandako karatekak lehen aldiz izan genituen horrelako torneo

batean, eta egia esan, txapelketa txukuna burutu zuten. Horien artean, infantil mailan Alexander Justel 2. postuan sailkatu zen. Horrez gain, Kerman Colino, Miriam Santateresa, Josu Cid, Erik Justel eta Odei Vazquez karatekek lan bikaina egin zuten.

Torneo honetan parte hartu ondoren, Odilo Vazquez entrenatzaileak era honetako txapelketen garrantzia azpimarratu nahi izan du, bereziki gazteak motibatu egiten direlako. Aurrerantzean ere gertu azaldu da horrelako txapel-

ketetan parte hartzeko.

Hogeita zortzi karateka

Gaur egungo karate eskolak hogeita zortzi ikasle ditu, horietatik zortzi nagusien taldean daude eta gainontzekoak gazte taldean. Guztiek martizen eta eguakotxetan entrenatzen dute kiroletxean, aurrez esan bezala bi taldetan denak Odilo Vazquezen aginduetara. Karate maixu honek jakinarazi digunez, gazte taldea guztiz beteta dago, eta ikasle gehiagok eskaria luzatu duten arren, momentuz ez dago lekurik.

■ ARLUTZEKO KANTXAN LAU KANASTA BERRI JARRIKO DIRA

Iazko urtean Arlutz osteko kantxa berrizteko konpromezua hartu zuen Udalak eta lanok datorren astean hasiko dira. Horrela astelehenean lau kanasta berri jarriko dira aipatutako jokalekuan eta baita beste bi Kurtzebarri eskolakoan ere. Arlutzekoari dagokionez, lurra labankorra izan ez dadin produktu bat botako da zoruan, eta honekin batera markatu ere egingo da. Lanok aurrera eramateko eguraldiak laguntzea beharrezkoa izango da eta hori horrela izanez gero, aste pare batean lanok bukatuta egongo lirarteke.

■ POL-POL ELKARTETIK ALPEETARA IRTEERA ANTOLATU DA

Bergarako Pol-Pol elkarteak apirilaren 21etik 29ra bitartean Alpeetara irteera antolatu du. Alpeetarako bidaia autobusean egingo da eta prezioa 48.000 ptakoa da. Asegurua, berriz, 2.800 pta. Informazioa Pol-Pol mendi elkartearen jaso daiteke astelehenetik eguenera arratsaldeko 7etatik 10:30etara edo eta 943 76 48 51 telefonoan.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatua

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Denetik

Solarium-a salgai.
Prezioa: 45.000 pta.
Goizez deitu 943 79 68
63 telefono zenbakira.

Eraztuna galdu nuen aratusteetan. Balio sentimental handia du niretzat. Norbaitek aurkitu badu mesedez deitu 943 79 34 70 telefonora.

Bi salmahai eta apalategi metalikoak salgai. Tel.: 666957983

Aratuste domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Aretxabaletan. Tel.: 945 44 52 00.

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa. Txuria. Tel.: 943 77 09 23. (Roberto).

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

Zorro urdina duen argazki kamara galdu nuen aratuste domekan. Ricoh markakoa. Deitu 943 79 86 21 telefonora.

Opel Kadet GSI 2000 16 v salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 75 11/79 98 08 (Mikel).

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

Etxebizitza

Kotxea salgai Renault 21 TXE. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

Zaldia baldin baduzu eta nirea zaintzeko prest bazaude, tratu batera hel gaitzke. Tel.: 943 79 21 86. (Jonegatik galdetu).

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626379326.

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Tel.: 945 17 28 13 edo 943 79 49 18.

Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko. Tel.: 607 798 723.

57 m²ko garajea salgai edo alokagai Errekabarrren kalean. Tel.: 943 79 74 73. Gela bat alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 05 28.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tel. 649 16 86 69.

Garajea alokagai Santa

Kurtz kalean 24. zenbakian. Tel.: 943 79 16 24.

Herriko plazan lokal bat saldu edo alokatzen da. Tel.: 943 79 77 30. Egoera onean.

Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa).

Hiru-lau langilek pisu bat behar dugu alokairuan hartzeko. Jatorrak gara eta etxea ondo zainduko dugu. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa)

Logela bat alokatzen da, pisu konpartitu batean Arrasaten. Tel.: 943 79 23 96.

Etxe bat alokatuko gure Aretxabaletan edo Arrasaten. Tel.: 646699843.

Pisu bat edo gelak alokagai. Santa kurtz kalea, 5. Tel.: 943 77 11 45.

Pertsona batek Aretxabaletan pisu bat konpartitzeko beste pertsona bat behar du. Egunez deitu: 943 74 80 00 telefonora eta gaez 943 77 18 72 telefonora.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

Lyonel Arquero

Dekorazioa:

Soraya Arquero

BEIRALAN



◆ Komunerako altzari eta manparak

◆ Ispiludun armairu aurrealdeak

◆ Beirate artistikoak

◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea

☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

Lana

2. LOGSEko zientzietako ikasle batek kimika eta historiako klase partikularak hartuko lituzke.

Tel.: 666 725 332.

Ingeleseko klase partikularak ematen dira. Maila guztiak.

Tel.: 943 77 08 69.

Dukiena jatetxeak garbitasunerako pertsona bat behar du eta baita zerbitzari lanerako beste langile bat. Tel.: 945 44 50 86.

Pertsona bat behar da taberna batean zerbitzari lanak egiteko astebukaeretan. Tel.: 943 79 02 25.

Enpresa zientzietan lizentziatua lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

Lan deialdi publikoak

Administrari laguntzailea.

Eibarko Udala.

Epea: Martxoak 29.

Gipuzkoako Foru Aldundiak

Uliazpi fundaziorako zaintzailea behar du.

Epea: Apirilak 4.

Vianako Udala. Bake epaile titularra.

Epea: Martxoak 26.

Ultzamako Udala.

Administraria.

Epea: Apirilak 7.

Nafarroako Foru komunitatea. Bi itzultzaile lanpostu.

Epea: Martxoak 27.

Hirugarren adinekoen zaintzailea: 22 lanpostu.

Epea: Martxoak 29.

Osasunbidea. Zaintzaile gerontologikoa. Epea: Martxoak 29.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

SUKALDARI LAGUNTZAILEA. Arrasate.

Erref.: 30146/3

TALDEKO BURUA. Arabako lautada.

Erref.: 28509/3

MERKANTZIA GARRAIOLARIA. Durangaldea.

Erref.: 29141/3

TXAPISTA. Durangaldea.

Erref.: 30317/2

TEILATU KONPONTZAILEA. Gasteiz.

Erref.: 27693/4

BOST SUKALDARI LAGUNTZAILE. Bilbo.

Erref.: 30231/2

KAMIOI GIDARIA. Ibaizabal.

Erref.: 30350/2

DISEINATZAILE GRAFIKOA. Bilbo.

Erref.: 29739/2

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

*Etxabe
harategia*

Durana 4
☎ 943 79 16 61



Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

Ane Lore Estala Udaleko euskara teknikaria dugu. Hamabi urte daramatza lazkaotar honek udaletxean. Besteak beste, itzulpenak egitea, testuak zuzentzea eta euskararekin lotutako hainbat lan jorratzea da bere lana.

Ane Lore Estala

"Hemengo hika entzutea asko gustatzen zait"



- Zer egiten du lazkaotar batek Aretxabaletan?
- Lana egin. Hemen hasi aurretik ikastola batean lan egin nuen. Gero hemengo postua atera zenean, lehiaketa publikora aurkeztu eta postua lortu nuen.
- Eta zenbat urte pasatu dira ordutik?
- Hamabi urte.
- Zer ikasi duzu udaletxean egon zaren urte hauetan?
- Administrazioaren funtzionamendua alde batetik, eta euskararen arloko atal desberdinak ezagutzeko aukera ere izan dut, bestetik.
- Udaletxe barrura ala kanpora begira lan egiten duzu?
- Biak, baina bereziki udaletxe barrura.
- Zein da zure lana zehazki?
- Itzulpenak egitea, testuak zuzentzea...
- Lazkaoko euskalkia ala hemengoa?
- Biak gustatzen zaizkit. Eskualde bakoitzaren euskalkia oso aberasgarria dela uste dut. Horrez gain, hemengo hika entzutea asko gustatzen zait.
- Noiz egoten zara familiakoekin?
- Lanetik irteten naizenean.
- Eta lagunekin?

- Berdin, lanetik irtendakoan.
- Bi seme dituzu.
- Bai, Eleder eta Eñaut.
- Gizonari azkenengo erregalua zer?
- Bi liburu eta kolonia.
- Etxebizitzetako arazoa nola ikusten duzu?
- Prezio ikaragarriak dituzte. Babes ofizialeko etxebizitzak egin beharko lirateke. Hala ere, azken hauek duintasun batekin egindako etxebizitzak izan beharko lukete.
- Libururik gomendatuko zeniguke?
- Asko gomendatuko nituzke, Garoa horietako bat.
- Pertsonengan zein ezaugarri baloratzen duzu?
- Zintzotasuna eta gauzak aurrez-aurre esatea.
- Zer gogoratzen duzu ezkondu zinen egunekoa?
- Oso eguraldi ona egin zuela eta oso ondo pasatu nuela.
- Eder-kirurgia egingo zenuke?
- Momentu honetan ez, baina norbere buruarekin gutorago sentitzeko lagungarria bada, ondo ikusten dut.
- Zein jantzi ez zenuke inoiz jantziko?
- Gazteek eramaten dituzten jantzi batzuk adibidez, niki motz eta estuak esaterako. Ikusteko asko gustatzen zaizkidan arren, neuk ez nituzke jantziko.

FOTO

Urkiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak

Albunak
Argazki kama-
rak

ARBULO
HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tel.: 943 79 02 24
ARETXABALETA

Jose Mari
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta



Kontu gutxi baina mamitsuak

Kontu gutxi dakart gaurkoan eta aste santuko oporrei begira, burua txoriz beteta darabilt. Ni aste santuaren zain baina herriko **jubilatuak**, jadanik Benidorren dira hamabost egunetarako joanda. Hau da hau zortea! Gaztetan egin ez zutena erretiratutakoan egiten ari dira asko, inoiz ez da berandu, ez horixe. Ni, berriz, joan zen zapatuan sagardotegian izan nintzen. **Gazte-txeak** bidaiatxo antolatuta eta Astigarragaraino joan ginen 30 bat lagun txuleta jan eta sagardoa edatera. Dantzan egiteko aukera ere izan genuen, sagardotegiak ere orain asko modernizatu baitira.

Opor usainak momentuz ahaztu eta beste kontu batzuetara pasatuta, martxoaren 13an Andoni Aizpuruk aurkezten duen Bertatik bertara programan hainbat atxabaltar agertu zirela aipatu behar. Batetik, Aretxabaleta eta Arrasatera etorri ziren kaleko inkesta egitea eta **Miren Urreta**, **Jesús Erostarbe** eta **Beatriz Etxabe** harrapatu zituzten kamarek. Bestetik, **Ainize Errastik** e-maila

bidali zion Andoniri, Aretxabaleta sekula ez dutela atera programan eta oso paraje politak dituela esanez. Arrazoia daukazu Ainize, Nafarroa eta iparralde oso politak dira baina gure herria ere ez da txori kaka. Behar bada horrexegatik aukeratu dute Aretxabaleta **II. basogintza topaketa** egiteko. Iaz Bizkaian izan zen, Muxikan eta aurten gure herrian. Martxoaren 31an hitzaldi luze-zabalak izango dira Zaraia zineman eta apirilaren 1ean baso azoka Urkulun. Hainbat erakusketa jarriko dituzte bertan, perretxikoena, ehizarena, egurraren inguruko produktuen... eta basoko produktuekin egindako artisau lanak, bertsolariak, aizkolariak, trontzalariak... ere izango dira. Beraz, giro politaz gozatzeko aukera izango dugu dudarik gabe.

Bukatzeo, **Putz aldizkari**ko lan taldeak datarren zapatuan Urbaltz elkartearen bazkaria egingo duela aipatzea nahi nuke. Jatorrak eta langileak Putzakoak baina xelebre samarrak beraz kontuz...

M. J. Aizpuruk

LIBURUTEGIKO TXOKOA

0 urtetik aurrera

- Sagutxoren abentura/Steve Lavis - Ttarttalo, 1999
- BIDAIA dibertigarri bat/[marrazkiak, Laura Tavazzi] - Ttarttalo, 1999
- Aloñaren zenbakien liburua/Paul Dowling-Ttarttalo, 1999

6 urtetik aurrera

- Itsasoan galdutako pirata/Josep Antoni Fluixá-Elkarlanean, 1998
- Teo ur-parkean/Violeta Denou-Elkarlanean, 1999
- Nire auzoko bat sorgina da/Paloma Bordons-Edebé-giltza, 1999

8 urtetik aurrera

- Fraixko eta galtzagorriak/Juan Martin Elexpuru-Txalaparta, 1997
- Paskalin kulero zikin/Antton Dueso-(Punki; 5) Roger, 1999
- Portzelanazko irudiak/Iñaki Aldai-Erein, 1998

10 urtetik aurrera

- Eguneroko erronda/Ricardo Alcantara-Edebé-giltza, 1999
- Londresen nago aitonarekin/Joxemari Iturralde. Erein, 1998
- Marraztu arkume bat/Seve Calleja. Desclée de Brouwer, 1999
- Kinkilarien ametsa/Edebé-giltza, 1998

14 urtetik aurrera

- Loro bat erretorearentzat/Gerald Durrell-Elkarlanean, 1999
- Ez idolorik uki/Brigitte Smadja. Desclée de Brouwer, 1999
- Kurt Cobainen heriotza/Care Santos-Desclée de Brouwer, 1999

Nobelak

- Putzu/Txillardegui-Elkarlanean, 1999
- Txoriburu/Asun Balzola-Erein, 1999
- Oroituz/Jon Arretxe-Elkarlanean, 1998
- Leviatana/Joseph Roth-Susa, 1998
- Ripley trebea/Patricia Highsmith-Igela, 1999
- Etorrerakoak/Patziku Perurena-Txalaparta, 1998

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN



Egileak: 1 mailak.

Gaurko honetako akatsa:
Gaur zure zoriak dira?
Gaur zure eguna da?
Bai ikusi zenbat opari.



Kurtzebarri eskola

MARTXOA**23 EGUENA****■ KAFE TERTULIA**

Mundukide fundazioak Hego eta Ertamerikako hainbat kiderekin batera kafe tertulia saioa egingo du udaletxe zaharrean arratsaldeko 7etan.

26 DOMEKA**■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-Ozaeta-Narvaja-Ozaeta-Landa.

29 ASTEAZKENA**■ HITZALDIA**


"Deba Ibarrako euskera" liburua idatzi duen Koldo Zuazo eibartarrak hitzaldia emango du bere liburuaren inguruan. Arratsaldeko 7etan udaletxeko ganbaran.

30 EGUENA**■ BATZAR OROKORRA**

Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak batzar orokorra egingo du arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrean.

31 EGUAKOTXA**■ II EUSKAL BASOGINTZA TOPAKETAK**

Euskadiko Zur Mahaia antolatuta Zaraia zinemaren hainbat hitzaldi egongo dira: Euskal baso eta mendiak, landagarapena, zuraren transformazioa... Horri guztiari buruz inork informazio zehatzagoa nahiko balu hamabostean behin atalean jasotzen da.

**APIRILA****1 ZAPATUA****■ BASO AZOKA****URKULUKO URTEGIAN**

Euskadiko Zur Mahaia antolatutako azoka. Saietan banatuta egongo da: atsedena, zaintza, produktzioa, etxe komertzialak, herri-kirolak, bertsolariak, basoko produktuekin egindako artisau-lanak... goizeko 10etatik eguerdiko ordu 2etara izango da Urkuluko urtegian.

2 DOMEKA**■ MENDI IRTEERA**

Zaraia mendi taldeak Otzaurte-Lizarruzti mendi irteera egingo du.

3 ASTELEHENA**■ MARGO TEKNIKAK**

Tril emakume taldeak antolatuta Iñigo Arregi arrasatearrak margo teknikei buruzko ikastaroa eskainiko du arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrean.

IKASTAROAK**■ ARGAZKIGINTZA IKASTAROA**

ASA argazkizaleen elkartearekin elkarlanean Arrasateko gazteria batzordeak argazki ikastaroa antolatu du. Hastapen mailakoa teorikoa eta praktikoa izango da. Apirilaren 1etik ekainaren 3a arte. Zapatu goizetan 10:30etatik 13:30etara. Izen ematea Arrasateko gazte bulegoan.

■ HAURREI IPUINAK NOLA KONTATU TREBATZEKO IKASTAROA

Eskoriatzako Udalak antolatu duen ikastaro honen helburua, gurasoei ipuinak nola kontatu irakastea da. Apirilaren 1ean eta 8an emango da goizeko 10etatik ordu batetara Eskoriatzako kultur etxean. Emalea: Ixabel Aguirrezarobe. Argibide gehiago 943 71 46 88 telefonon.

BEKAK**■ ESTADISTIKA METODOLOGIAK**

Eusko Jaurlaritza. Eustat. Estatistikarekin erlazioz atutako lizentziadunei edo diplomadunei zuzendua.

BALITXAKUK (Hikaz berbetan)

Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Leire Belategi
Martxoak 14
Aretxabaletako
neska jatorrenari
zorionak.
Etxekoak.



Iratzeder Iturri
Martxoak 21
Zorionak eta
urte askotarako.
Koadrilakoak.



**Jose Benito
Ayastuy**
Martxoak 21
Zorionak.
Aittaita eta aitta.



**Miriam Zuazua
eta Amagoia
Unanue**
Martxoak 10 eta
27. 24 urte eta
ondion hola?
Zorionak.



Rexu Aretxaga
Martxoak 27
Zorionak eta urte
askotarako.
Zure ilobak!



**Antonio
Astigarraga**
Martxoak 30
Zorionak!
Zure lagunak.



Miriam Urkia
Martxoak 31
Zorionak.
Atxabaltako lagu-
nen partetik.



Joseba Altube
Martxoak 31
Zorionak zure
lehengusina eta
koadrilakoen par-
tetik.



Eba Berezibar
Apirilak 1
Zorionak eta urte
askotarako koadri-
lakoak.



Gotzone Arrese
Apirilak 5
Zorionak
Aretxagazetako
partetik.

Txistuak • Txaloak

Bederatzi aste pasatu dira herri hauteskundeak egin zirenetik. Bertan aukeratu ziren gure herria ordezkatzuko duten hamairu zinegotziak. Hala ere, herri guztietan telebistan agertu bai baina, lanik egiten ez duten "politikoak" daudela konturatu gara. Zer pentsa dezakete Iñaki, zinegotzi sozialista, aukeratu zuten 425 pertsonen, pleno aretora behin baino agertu ez dela jakin ondoren? Politika gauza arraro samarra da, baina aulki hutsak errespetu falta adierazteaz gain, txistu bat merezi du. Denok sentitu genuen Buesa Jaunaren heriotza, baina gaitzespen mozioa aurkezteko ere ez zen azaldu aipatu-tako zinegotzia gure udaletxera.



Atxabalta telebista

20:00

20:30 | 21:00

martizena

ALBISTEAK/Agenda
Argazki-zaharrak
Kiroiak

Albiste errepikapena

egukotxa

ALBISTEAK/Agenda
Eguraldia

Albiste errepikapena

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otarora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



H Bainuetxe dotorea

ona hemen garai bateko Eskoriatzako bainuetxea izan zena. Batzuentzat ezaguna izango da erretratu hau, ez ordea beste batzuentzat.

Eraikuntza dotore honek hiru etapa ezagutu zituen historian zehar: bainuetxea, eskola marianista eta ondoren Almen sortu osteko etapa.

Bainuetxea 1865. urtean zabaldu zen eta 29 urtetan mantendu zen zabalik. Dokumen-

tuek, beraz, 1894. urtean aipatzen dute beronen itxiera eta urte bete beranduago, 1895. urtean marianistek erosi zuten.

Antza denez, Frantziatik etorri ziren marianistak Eskoriatzara baina lehenagotik ere beraien presentzia nabari zen Euskal Herrian, Donostia eta Gasteizen esaterako.

1965. urtean hirugarren etapa bat zabaltzen da erai-

kuntza honen historian. Urte horretan Almen, Asociación Leniz Mancomunidad de Enseñanza, sortu zen. Eskolaren funtzionamendurako marianisten presentzia ezinbestekoa izan zen eta hasierako urteetan marianistak aritu ziren irakasle lanetan.

Argazkia: Aretxabaletako argazki artxiboa.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

Express akeitegia



Santa Kurtz, 16
☎ 943 79 23 43

zure gustoko giroa

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Dorleta taberna

Dorleta

Bezereoen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 943 79 94 15

Arlutz taberna

ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TÍNOA • 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

• Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

Mendiola erretegia

ESKORIATZA
Tfno 714345 **ERRETEGIA**
MENDIOLA

*Bazkariak
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onengan**

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Amets taberna



Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaleta

Basabe jatetxea

Menu eta afariak



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Josu harategia/taberna

**Josu
harategia**



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08

Taberna Berri

**Taberna Berri
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

Urbaltz taberna

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behe
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Auto hauetan serieko 4 abantaila.

- **Autoaren azterketa zorrotza.**
- **Konpromisorik gabe autoa probatzeko aukera.**
- **Norbere neurriko finantzaketa.**
- **Eta 30 hilabetera arteko bermea**

MODELOA	URTEA	AUKERAN	PREZIOA PTA. / €
R. MEGANE CLASSIC 1.6 ALIZÉ	97/12	LD,IZ,KE,AG, IRRATIA	1.590.000/242,39
FIAT TEMPRA 1.9 TD	95/10	LD,IZ,KE, KLIMATIZAG.	900.000/137,20
FORD MONDEO 1.8 TD GHIA	94/04	LD,IZ,KE,AG,ABS	890.000/135,67
FORD TRANSIT 2.5D FURGOIA	96/10	LD	1.350.000/205,80
FIAT MAREA T. D. ELX	96/12	LD,IZ,KE,AG	1.350.000/205,80
FORD GALAXY TDi (6 leku)	96/10	L,D,IZ,KE,AG,ABS	2.730.000/416,18
CHRYSLER VOYAGER (8 leku) 2.5 DSE	97/12	LD,IZ,KE,AG	2.700.000/411,61
HONDA CONCERTO 1.6i (16 V)	93/10	ID,IZ,KE,AG	775.000/118,14
GOLF 1.8 iCL 5 ATE	93/06	LD,IZ,KE	1.090.000/166/16
CLIO L4i APPLE 5 ATE	97/02	IZ,KE	860.000/131,10
TWINGO PACK 1.2	99/06	LD,IZ,KF,AG	1.250.000/190,56

RENAULT
Aukera

Zure auto berria



MECA

San Andres auzoa, 8 - ARRASATE - Tel.: 943 71 21 67
Amillaga, 5 - BERGARA - Tel.: 943 76 40 68